

- Banaketa eta komunikazio kanala:

Balorezko proposamena bezeroengana ailegatu dadin, gure enpresa nola komunikatzen den eta bere merkatu-segmentuetaraino nola iristen den deskribatuko dugu. Kanalen barnean, honako alderdiak berezituko ditugu: Komunikazio kanalak, banaketa-kanalak eta salmenta-kanalak. Kasu guztietan, bezeroarekiko harreman-puntuak dira, kanal bat osatzen duten bost fase bereziak zehazten dituztenak: pertzepzioa, ebaluazioa, erosketa, entrega eta salmenta ondorengoa.

➤ Bi kanal bereizi ditzakegu:

a) **Kanal zuzenak**, hots, bitartekariak saihesten dituztenak. Komertzialen talde batek osatutako salmenta indarra edota Internet bidezko online salmenta denda bat izan daitezke, adibidez.

b) **Zeharkako kanalak**, hau da, dendak (propioak edota elkartuak) eta dendei handizkako salmenta egiten dieten handizkariak.

- ❖ **Kanal propioak** honakoak dira: Salmenten Indarra, Internet bidezko Salmentak eta, izatekotan, baita gure denda propioak ere.

- ❖ **Kanal elkartuak.** elkartutako dendak eta handizkariak, hain zuzen.

Gure kasuan interneten bidez, gure web orrian salduko ditugu. Enpresa handi batekin hitz egingo dugu gure produktuari publizitate on bat egiteko, horrez gain, sare sozialetik publizitatea egingo dugu.

